[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
548. zkia.
XIII. urtea
2005eko urriaren 28a




Iñigo Ortuoste, ETBko kamera operadorea

# «Tourreko etapa bat mototik ematea da nire ametsa»

[ EZAGUNAK LAGUN ] MTZ. DE IRUJO • [ KILIBARREN ] BEHOBIA-DONOSTIA


#93
DAGOENEKO ABIAN DA #93. PROIEKTUA:
DEBA ETA MUTRIKU LOTZEN DITUEN ZUBIA.
Inbertsioa: 11.300.000 euro
Lotzen duen proiektua. Deba hibaiaren bi ertzak lotzen dituen zubi berria, elkarrengandik hurbilago egon gaitezen. Dagoeneko proiektutik haratago dagoen proiektua. Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doan errealitatea da. Elbarko saihesbide berria, edo Deba bailararako futbol hobekuntza teknikorako zentroa, eta Elgoibarren aterperik ez duten pertsonei laguntzeko zentroa bezalaxe... Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.
Aparteko Inbertsio Plana.
Debabarrenan ere bai.
Aparteko Inbertsio Plana 2004-2007
Plan extraordinario de inversiones 2004-2007
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# ZOZOAK BELEARI...



**MIKEL KORNEJO**

Aupa xalao!

Urakanen hilabetea urria, e? Kontua galdu dut, zenbat izan dira? Ez al zuten esan aurrekoa denboraldiko azkena izantea espero zutela? Ai, espero izatea ez da baina nahikoa...

Hainbat zibilizazio zaharren arabera, munduaren amaiera 2011. urtean izango omen da. Munduaren mutur desberdinetako aintzinako igarkizunak bat omen datoz. Mundua bukatu aurretik ezbehar naturalek astinduko gaituzte eta, ondoren, gure mundua bukatuko da.

2011. urterarte zai egon behar, a ze zirrara! Asmatuko ote dute?

Munduaren amaiera zibilizazioaren amaierarekin pareka dezakegu. Klimak herrialdeen garapenean duen eragina kontutan izanda, zer gertatuko litzake ezbehar naturalek Ipar Amerika, edo Europako Herrialdeak hankaz gora jarriko balituzte? Munduaren amaiera edo mundua hankazgora? Ez al da izango munduaren amaiera deitzen duguna gure erre-ferenteen deuseztapena? Beharbada ez diogu errealitateari indar handiegiz eutsi behar, arrastaka eraman ez gaitzan...

Beno, nahikoa masturbatu naiz dagoeneko, Ibane, ia burua baretu eta lo egin dezakedan.

Gaboooon... edo egunon!

P. D.: Epeak beharrezkoak dira, baina ez lepo inguruan soka jarrita, e?

**[ «Munduaren amaiera 2011. urtean izango omen da» ]**

**MIKEL**

**[ «Gai hauetan jakitun ez izateak lasaitasuna ematen du» ]**

**IBAN**



**IBAN URIZAR**

Mikelerele!!

Hondamendien errege bihurtu da urakana azken aldian. Wilma izenpean azkena. AEBko kostaldea, Mexikoko hego-ekialdea eta Kubako mendebaldea aukeratu ditu oraingoan. Kuriosoa da distantziak ematen duen lasaitasuna gai batzuri eusterakoan. Aldiz, hondamendi hauen arrazoia aztertzeak bai sortzen dituela egundoko hotzikarak.

Gai hauetan jakitun ez izateak ematen duen lasaitasuna ere ez da txarra, eh!! J.J Benitez baten dokudrama baten ondoren, Nostradamus edo Aramis Fuster batek "kultura" desberdinetan duten eragina apartekoa bezain adierazkorra izan liteke. Baina kontu! buruari galdera gehiegi egiteak sortzen dituen korapiloak, askaezinak bihur daitezke. Horoskopo serioen jarraitzaile direnak bezala, zeu ere askea zara edozer etortzear dagoela pentsatzeko. Sinisdunek ere, benetakoek behintzat, badute zer esan gai hauetaz. Erlijio askok dauzkate hondamendi apartak deskribatzen diren kondairak, literaturaz jantziak denak. Badirudi urruneko eta aparteko hondamendiekin bertakoak ikustea kosta egiten zaigula, hain dira txikiak, hain gara txikiak.

P.D: Epeak epe eta lepoak lepo, baina soka estu-estu pasa didazu oraingoan ere. Potroak belarriak baino astunagoak direnean...

---

> «Ez dakigula zer gertatzen zaigun; horixe da gertatzen zaiguna»
>
> Jose Ortega y Gasset

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Kalean aske biziz independentzia!!! Urriak 29an denok Iruñara

Euskal gazteriaren egoera. Zenbat aldiz entzun eta ikusi dugu esaldi hau? Baina zein informazio eta baliabide gutxi dugun gazteok gure egoera ezagutzeko. Zergatik ezkutatzen zaigu informazio hori? Gazteok egunero errepresio polizial eta judiziala pairatzen dugu. 2004-2005 urteetan 192 gazte atxilotuak izan dira Espainiako Polizia Nazionala, Espainiako Guardia Zibila, Espainiako Ertzaintza, Frantziako Polizia eta hainbat hiriburutako udaltzainen eskutik.

Frantziak euroagginduaren bitartez 5 gazte estraditatu ditu, 32 gaztek tortura larriak salatu dituzte, 300 gazte inguru epaituak izan dira edo epaituak izatekotan dira, 24 gazte, gazte erakundeko kide izateagatik epaitu dituzte, 9 gaztetxe bortxaz hustuak izan dira, Espainiako Guardia Zibila, Espainiako Ertzaintza, eta hainbat udaltzainen eskutik.

Prekaritatea egoera larria da. 74 gaztek lan istripu larriak jasan dituzte eta hauetatik 51 hil egin dira. Gazteoi egiten zaizkigun lan kontratuen %95a behin behinekoak dira eta kontratu gabeko langileen gehiengoa 16 eta 24 urte arteko gazteak dira, gainera, praktika kontratuak dira gazteen artean gehien ematen direnak.

18 eta 35 urte arteko gazteen %21 soilik bizi da gurasoen etxetik kanpo, Euskal Herri osoan 234.283 etxe huts dagoen eta okupazioa gogor zigortua den bitartean (etxe okupatuak bortxaz hustuak izaten ari dira).

Gazte eta emakume izateagatik are zapalduago gaude. Langabezia tasa altuagoa da, sexu-erasoak etengabeak dira; ia egunero jasotzen dugu emakumeren baten hilketaren berri senarra edo bikotearen eskutik. Gainera, babes eskaera asko ukatuak dira...

Egoera hau ez da kasualitatez gertatzen. Espainiar eta Frantziar estatuak Euskal Herrian inposaturiko kapitalismo eta patriarkatuaren ondorio gordina da. Biztanleria osoa eta bereziki, gazteria zapaldurik edukitzeko ondo pentsaturiko estrategiaren bornean kokatzen da.

Gazteok egoera honi aurre egiteko indarrak batu behar ditugu eta horregatik Elgoibarko Segik atxikimendua adierazten dio Iruñan antolatu den Kalejira Nazionalari. Noiz arte iraungo du euskal gazteriaren aurkako zapalkuntzak? Antolatuz eta borrokatuz gure eskuetan dago egoera honi aurre egitea!!! Horregatik, lerro hauen bitartez, bihar, urriak 29 larunbata, arratsaldeko 18:00etan Golem zinematik hasiko den Kalejira Nazionalean parte hartzera animatzen zaitugu. Bertara joateko autobusa egongo da, arratsaldeko 16:00etan King-Kong geltokitik irtengo dena. Izen ematea ohiko lekuetan.

**Elgoibarko Segi**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

**Laguntzailea** Elgoibarko Udala **Kazetariak** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **Publizitatea** Eider Iriondo **Maketatzailea** Jaione Unanue **Kolaboratzaileak** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **Esaera zaharra** Gotzon Garateren liburutik **Inprimategia** Gertu **Tirada** 4.410 ale **Lege gordailua** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

DANOBAT GOITI ESTARTA Kondia

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



## KEXAK

• Jendeak ez du ingurunea batere zaintzen. "Deba ibaia garbi mantentzeko lan handia egiten ari da Elgoibarko Udala. Apraizko depuradora martxan jartzeak kostu eta lan handia dauka. Deba ibaian beti ikusten dira zakarrak, edo kaletik jaurtitako objektuak: aulkiak, gurpilak, konoak... edozer aurkitu daiteke bertan. Askotan asteburu ostean ikusten dira honelakoak, badirudi larunbatetan jendeak edoezer egiteko baimena daukala eta traba egiten dion guztia ibaira botatzen duela. Ikas dezagun mesedez ibaia eta natura orokorrean errespetatzen".

## TXALOAK

• Guraso talde batek Edurne Lasa eta Koldo Leibar Ikastolako irakasleak txalotu nahi ditu urte hauetan guztietan egindako lanagatik: "osasuntsu eta zorte handikoak izan gara gu beraiekin eta orain zorte bera opa diegu biei euren bizitzan".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



Pintxoetan aukera zabala

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76



# URRUZUNOREN *luma*

## Bartzelona

Hegazkinei beldur dieten horiei Bartzelonara etortzeko esango nieke. Hiri handia baita Bartzelona. Handia eta berezia.

Ranbletako eserleku batean eser zaitezke eta ia mugitu gabe leku izkutueneko irribarre guztiak ezagutu ditzakezu.

Aurrekoan, Plaça Catalunyako Fnac parean nengoen amona bat gerturatu zitzaidanean, "quina hora és, noia?", nola edo hala erantzun nion katalanez eta ondoan eseri zitzaidan. Amak mugikorrera deitzen zidan orduan.., pisua dela, unibertsitatea dela... 10 minutu inguru egon ginen berbetan.

Bukatu nuenenan amonak zera esan zidan: "Enee!! Hain gaztea eta txinatarrez ere badakizu zuk?".

Bartzelona handia eta berezia da, dudarik gabe.

***Maite Uriarte***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]

### KOLDO MURUAMENDIARAZ



MURUAMENDIARAZ GOZOTEGIko PASTELEROA

**• Azkenaldian entzun duzun albiste "bonba" bat?**
Hegaztien gripearen albisteak harritu nau.

**• Zertan gustatuko litzaizuke "relanpagoa" baino azkarragoa izatea?**
Ikasketetan, gai horretan ez naiz inoiz oso azkarra izan.

**• Nata ala krema?**
Biak ditut gustuko, baina aukeran krema.

**• Zein zine izarren txokolatezko irudia egingo zenuke?**
Cameron Diaz-ena.

**• "Merengeek" irabaziko al dute aurten liga?**
Ez nuke nahi, baina aukera handiak dituzte. Realak irabaztea gustatuko litzaidake.

**• Zerk jartzen zaitu "karamelo puntuan"?**
Realaren gol batek.

**• Norekin etzango zinateke "palmera" baten azpian?**
Lagunekin eta neskarekin.

**• Tarta ala pastelak?**
Pastelak, eta hori baino nahiago ditut pastak.

**• Nori botako zenioke tarta bat aurpegira?**
Tartak jateko dira, ez aurpegira botatzeko, baina botatzekotan PPko politikariei botako nieke.

## komikia

*Hil da gero... Tony Manero*




*Kokoe 035*

# [AKORDATZEN NAIZ]



## ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

## «Zeleta baserrikoa»

Zeleta basarrixan jaixotakua naiz. San Migelera bidian Metalkua pasau, eta kilometro erdira dago gitxi gorabehera. Gaur egunian, inbernadero haundi batzuk daude. Ni hantxe bizi izan nitzan ezkondu arte, eta gero kalera etorri nitzan. Gaur egun nere koiñata alarguna eta Arantxa illobia bere bikotiarekin bizi dira han. Noizbehinka basarrira juten giñan bixitan, baiña bizi kalian.

Basarriko eta kaleko bizimodua oso diferentiak dira. Gaur egungo basarriko bizimodua ez da lehengua bezelakua, orduan gogorragua zan. Basarrixan ez dago ordurik: goizian eguna argittutakuan hasi bihar da, eta lana ez da amaitzen.

Bazkarixa beti ordubata aldian izaten da, baiña noiz erretirauko zeran, ez dakizu. Bero daguanian bero dagualako, hotz daguanian hotz dagualako, eta eurixa danian eurixa dalako, beti kejia, baiña lana egiñ egiñ bihar da.

Gaur egunian makinerixa ona dago, eta lana erreztuta dago, baiña hala ere gogorra da: han ez dago oporrik.



# [GURE BERBAK]

## Esapide adierazgarrixak (6)

Esapide adierazgarrixen harixari tiraka egiñez, dexente esapide erabiltzen dittugu; konturatuko ziñaten horrekin honezkero. Elkarrizketak eta kontakizunak bizixaguak eta indartsuaguak egitten dittugu esapidiok erabilliz. Hona beste batzuk:

- *Hori dok ixkua, hori! Ehun eta hamar bat kilo izango dok!*
- *Mutill txatxar bat dok: zenbat erralde izango dok, ba, haura!*
- *Har kriston erromerixia egitten zan, frontoia bete-bete jende egoten zan, han dantzan, jo ta sua!*
- *Etxagok kolorerikan lehengo pelotarixen (Gallastegi-eta) eta gaur egunekuen artian!*
- *Mesedez eta faborez eskatzen dizut: ekarri behingoz nere liburuak!*
- *Lapurretan ari zala, aguazilla etorri zan: harek etara zaban perra hotsa!*
- *Ez dago Elgoibarren haura (nere semia) ezagutzen ez daban txakurrik!*
- *Horrek bixak alkarrekin dabizenian, ez dago kristaurik entendiduko diuenik.*
- *Istorixak asko jaukadaz nik, Jesus, Maria ta Jose!*
- *Eske pentsau, Melillaraiño jun egin bihar da, eh? Lekutan dago haura!*
- *Hori dok txatxaria, hori, daukazuena! Hamaikak dittuk eta oindik lanian hasi gabe?*

*Jesus Mari Makazaga*

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arriola
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

OREKA
TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA
HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo lidekin
UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
ANTSIETATEA
DEPRESIOA
ESTRESA
ELIKADURA ARAZOAK
AUTOESTIMA
miren mujika 676 61 70 55

EZAGUNAK

lagun

## JUAN MTZ. DE IRUJO

# «Pilotaria banaiz aitari

Irabazi, irabazi edo kosta ahala kosta irabazi. Horra hor mutil honen leloa. Kantxan otso eta kalean uso dela dio duela 24 urte Iberon jaiotako mutilak. Irabazteko grina ei da Irujok kantxan ateratzen duen karakterraren erantzule. Pilotaria ez balitz, lagun gehienak moduan tailerrean ariko zela uste du, baina pilota eta pilotazaleentzat zorionez, zaleturik exijenteena eserlekutik altxa edo etsipenean murgildu dezakeen pilotari harrigarria da. Galderak ere bote-prontoan erantzuten ditu!

**• Profesional mailako estraineko urtean buruz-buruko txapela irabazteak zer ondorio izan ditu?**

Profesional mailara egokitzeko laguntzarik onena izan zen. Titulo eta garaipen guztiak dira ongi-etorriak. Pertsonalki gutxi aldatu da nire bizitza. Lagun berberekin eta Iberon jarraitzen dut.

**• Arrakastak horren bizkor iritsita ez al zenuen pentsatu, "hau egina zagok"?**

Ezta pentsatu ere! Iristea neketsua da, baina maila onean mantentzea da benetan zaila. Horregatik ia egunero entrenatu eta nire burua mailarik onena emateko prestatzen dut. Gauzak ondo doazenean dena oso polita den arren, makilkadak datoz txartzen hasten direnean eta danerako prestatuta egon behar da.

**• Lau t´erdiko txapelketa: nahi eta ezin?**

Ikusten denez ez naiz ondo moldatzen kaiolara. Udan partida mordoa jokatzen dugu eta prestatzeko batere astirik gabe iristen da lau t´erdikoa. Ez da aitzakia, pilotari guztiok baikaude egoera berean, baina niri kalte gehiago egiten didala dirudi. Gogoko dut lau t´erdia, txapelketek eta konpetizioak ematen baitidate bizia. Halere, hiru txapelketa nagusietatik (buruz-burukoa, binakakoa eta lau t´erdikoa) gutxien gustatzen zaidana dela aitortzen dut.

**• Publikoak ikuskizuna nahi du, baina batzuek gutxiago arriskatzeko eskatzen dizute.**

Halaxe da bai. Askotan ez dut tutik ere ulertzen. Jendea ikuskizun bila doa frontoira, baina behar baino gehiago arriskatu eta huts egiten badut, kritikak entzun behar. Zer egingo diogu ba! Denetarik egotea ona dela uste dut, gustu guztietarako baitaude koloreak. Arriskatuz lortu ditut tituloak eta halaxe jarraituko dut.

**• "Neuk moduan Retegi Ilak irabazle izaera zuen..." irakurri nizun. Kirolariarengandik bana ezineko kontzeptua zela uste nuen...**

Bai kirolarion gehiengoa ezin lehiakorragoak gara. Pilotan, musean edo edozertan aritu irabaztea gustatzen zait. Kantxan transformatu egiten naiz, frontoietako Irujok ez dauka zerikusirik kalekoarekin. Arriskatu eta tanto politak eginez disfrutatzen dut, nahiz eta benetako poza irabazteak ematen didan. Nire izakera da. Alabaina, galtzen badakidala uste dut eta

**«Arriskatuz lortu ditut tituloak eta halaxe jarraituko dut kritikak entzun behar baditut ere»**



2005-10-28

# esker da»



Argazkiak: aspepelota.com

bost minututan pasa zait "letxe" txar hori. Ez naiz haserrea jendaurrean azaleratzeko zalea, barruan gorde eta nire buruarekin edukitzen dut disgustua. Partidaren bilakaera edo garrantziaren arabera loa ere galtzen dut.

**• Egia al da txikitan partida asko galtzea tokatu zitzaizula?**

Bai, 13 edo 14 urterekin indarra zen kantxan balio zuena. Txikia eta mehea nintzen, indargabea. Egur asko jaso nituen arren gerorako baliagarria izan zait. Pilotari indartsuagoei aurre egiteko beste baliabide batzuk garatu nituen: aurreko koadroetako jokoa eta airez sartzen ikasi nuen. Porrotak porrot pilota lagatzea sekula ez zitzaidan burutik pasa. Alderantziz, egunetik egunera jokatzeko gogo gehiago dut. Pilota maite dut.

**• Zenbat ordu sartu dituzu Iberoko frontoian?**

Asko, beti frontoian sartuta lagunekin. Pilotak ez du parekorik Iberon, errege da. 180 biztanle gara eta lau erremonte jokalari profesional atera dira. Aita eta osaba bat ere Espainiako Txapeldun izan dira eskuz. Nire lagunak denak aritu dira pilotan baina niri dena ongi atera zait eta nagoen tokiraino iristeko zortea izan dut.

**• Zeini esker da pilotaria Irujo?**

Pilotaria banaiz aitari esker da. Nirekin ordu gehien sartu dituena izan da. Aitak eta amak eraman naute leku guztietara, entrenatzera, partidak jokatzera, e.a. Beti esaten dut nire aita dela pilotaz gehien dakiena eta bizitza honetan gauza gehien eman didana.

**• Pilotarion artean harreman oso ona duzuela dirudi?**

Ez dago pilota moduko kirolik lagunak egiteko. Ez daukagu 'rollo' txarrik gure artean, denok gara lagunak eta 'katxondeo' asko dago. Pilota ezagutzen ez duen bati arraroa irudituko zaio, baina aldagela berean aldatzen gara eta elkarrekin solasean jartzen ditugu takoak. Final handi bat baino 10 minutu lehenago aurkariarekin txantxetan aritu zintezke.

**• Joango al zinateke Aimar Olaizolarekin kaña batzuk hartzera?**

Pozarren. Ez daukat batere arazorik Aimarrekin pote batzuk hartzeko. Kantxan aurkariak garelako frontoitik kanpora etsaiak garela uste du jendeak eta okerreko ustea da.

**• San Anton Txapelketako finala jokatu zenuen Elgoibarren. Akordatzen?**

Bai akorduan daukat. Profesionaletara jauzi egiteko atarian, afizionatu mailako azken urtean izan zen. Gorpuzkera egiteke nuen oraindik, berandu garatu bainintzen, 19-20 urterekin. Iruñeako mundiala prestatzen hasi nintzenean irabazi nituen kilo batzuk eta gorpuzkera guztiz aldatu zitzaidan.

**• Nolakoa litzateke tanto perfektoa ?**

San Fermin torneoko finala, Labriteko armailak ikuslez gainezka...50 pilotakadako tantoa... Lehenik aurkako atzelariari lan eginarazi, pilotakada zail batzuk jaso gero eta lautik botatako ezker gantxoarekin amaitu.

**[ «Ez daukat batere arazorik Aimarrekin pote batzuk hartzeko» ]**

**• Goazen orain pilotari perfektua osatzera Juan...**

Aimarren (Olaizola) buru hotza eta ezker eskua, nire eskuin besoa, Patxi Eugi edo Chafee-ren hankak eta Fernando Goñi edo Titinen defentsa. Konpletoena, berriz, Retegi II izan dela uste dut.

**• Nolakoa da Irujo frontoietatik kanpo. Zein litzateke zure egun perfektua ?**

Goizez kirol piska bat egin, lagunekin pilotan edo futbol partida bat jokatu. Behin gosetuta bazkari eder bat egin eta bazkalostean kartetan jokatu, musean edo beste edozertan.

## [ PROTAGONISTA ]



### HasierEtxeberria

Hasier Etxeberria idazle elgoibartarrak “Mutuaren hitzak” liburua kaleratu du. Nobelako protagonista Damian Arruti entomologoa da, "Eulien bazka" nobelako berbera. Damian Arrutiri eztarrian ebakuntza egin diote eta ondoren bere lagun pintore baten etxera joan da atseden hartzera, Baztanera. Bertan Aldaz jauna, Lakoizketa botanikoaren bilduma, Senperena amuarrain zalea... ezagutuko ditu. Bat-batean Senperena hilik aurkituko dute putzu batean itota edo itoarazia. Hemen hasiko da nobelako protagonistaren abentura berria.

## [ NOTIZIA ]

# Kultur Etxe inguruneko obrak urte amaierarako bukatuko dituzte

Elgoibarko Udalak lehiaketa bidez aukeratu du Kultur Etxe ingurunea berrituko duen enpresa. Oraingo honetan Bikani S.L. enpresa izan da hautatua. Obra honek 149.395,23 euroko aurrekontua dauka. Lanak 8 asteko epean bukatu beharko dituzte, beraz, urte amaierarako ingurunea berrituta egongo dela aurreikusten da.

**Bi funtzio**

Kultur Etxearen atzeko aldean egingo den plazoletak bi funtzio nagusi izango ditu: Batetik, eurite handiak diren garaietan Deba ibaiko ur kaudala neurtzeko jarri ziren ur-gainezkabideak estaliko ditu. Bestalde, Nafarroa Plaza, Kultur Etxea eta ibai gaineko zubia batuko ditu.



Plazoletaz gain, zubitik Merkatu Plazarako pasabidea berrituko da. Zubirako sarrera gunea konpondu eta Euskaltegira doazen eskailerak kendu egingo dira, ezinduentzako aldapa bat jarriz. Ingurunea jarleku eta farolaz apainduko dute.

## [ ZENBAKIA ] 37.525,54

Bono Lotoak bigarren saria utzi du Elgoibarren. Oraingo honetan saridunak 37.525,54 euro jasoko ditu. Esan beharra dago zozketa honetan ez dela lehenengo saridunik izan, beraz, bigarren saria potoloagoa da. Aurten gure herrian loteria tokatzen den bigarren aldia da hau. Nor izango da hirugarrena?

## asteko [ ARGAZKIA ]



Hego haizea eta eguraldi ona izan dira aste honetako protagonista nagusiak. Udazkenean sartuta gauden arren, tenperaturak udakoak dira oraindik. San Martinen uda aurreratu egin zaigula dirudi! Herriko parke eta terrazak jendez gainezka aurkitu ditugu egunotan eta kalean pasiaran ere, barra-barra dabil jendea. Ziur oraindik ere hondartzan hankak bustitzen dituenik ere badagoela gure artean! Elur zaleak kezkaturik dabiltza, baina lasai, uste baino azkarrako etorriko baita negua.

# Euskarazko prentsarentzat milioi bat euro gehiago eskatu diote Jaurlaritzari



Euskarazko hedabide idatzietako eragileek egin dituzten kalkuluen arabera, gaur egungo euskarazko prentsak milioi bat euro gehiago beharko lituzke hurrengo urteko gastuei aurre egin ahal izateko. Horregatik, prentsa idatziari dagokion aurrekontuan hazkunde hori aurreikusteko eskatu diote Jaurlaritzari.

### Hiru eskari

Azken hilabeteotan euskarazko idatzizko hedabideetako hainbat eragilek (BARREN astekaria ere barnean dago) elkarrekin jardun dute lanean sektorearen azterketa egiteko oinarriak jartzen eta egungo egoerari buruzko azterketa egiten. Eusko Jaurlaritza 2006ko aurrekontua prestatzen ari den une honetan hiru eskari egin dizkiote Kultura Sailari: Batetik, diru laguntzen zenbatekoa urtearen lehen 6 hilabetekoan jakin eta ordaintzeko modua egin dezala eskatu diote. Bestetik, milioi bat euro gehiago eskatu dute egungo beharrei erantzuteko, azken 5 urteotan laguntzak ez direlako batere hazi, ezta KPIren (Kontsumo Prezioen Indizea) igoerari legokiokeena ere. Azkenik, gainerako euskarazko hedabideen egitasmoak ere behar den neurrian babesteko eskatu dute.

## Plaza Txikiko merkadilloari boikota egiteko eskatu zuten




Elgoibar Bizirik Herri plataformak deituta, manifestazioa izan zen joan zen ostegunean. Bertan bildutako herritarrek, Plaza Txikiko merkadilloari boikota egiteko eskatzen zuten, bertako saltzaileak eskirolak direla oihukatuz. Bestalde, gainontzeko merkatariek Plaza Handia hesiz jantzita aurkitu zuten ostegun goizean. Hala ere, salmenta postuak jartzen hasi ziren Parrokiako arkupeetan, baina Ertzantzak eta Udaltzaingoak ez zieten utzi. Jarrera hau Eibarko epaitegian salatu zuten.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### 15 hilabeteko espetxe zigorra Arnaldo Otegirentzat

Espainiako erregeari "torturatzaileen buru" deitzeagatik Espainiako Auzitegi Gorenean epaiketa egin zioten asteazkenean Arnaldo Otegi Batasunako bozeramaileari. Fiskalaren iritziz "adierazpen askatasunaren mugak" gainditu ditu Otegik, eta Espainiako erregea iraintzea leporatuz, 15 hilabeteko kartzela zigorra eskatu du. Jone Goirizelaia defentsako abokatuak berriz, erregea "politikoki kritikagarria" dela adierazi zuen eta Arnaldo Otegi kargurik gabe uzteko eskatu zuen. Auzia sententziaren zain geratu zen.



### Iratxera irteera

Jubilatuen Egoitzak antolatuta, Iratxera (Nafarroa) irteera izango da azaroaren 9an. Prezioa 25 eurokoa da, eta honen barnean eguneko menua, "Vela" kontserberako bisitaldia eta Nafarroako produktu tipikoen dastaketa sartzen dira. Goizeko 8:00etan izango da irteera King-kong-eko autobus geltokian. Interesatuek Jubilatuen Egoitzan eman dezakete izena.

### Enkartelada

Etxerat-ek deituta, hilabeteko azken ostiraletan enkartelada izaten da Plaza Handian euskal preso politikoei estatus politikoa errespetatu, prozesuan parte hartu eta beraien euskalherriratzea eskatzeko. Enkartelada arratsaldeko 20:00etan izango da.

Euskaldunok soldataren % 60a erabiltzen dugu, bataz beste, etxebizitza ordaintzeko.

# Nola moldatzen zara etxearen hipoteka ordaintzeko?

**Mª PILAR IRANZO**
Etxekoandrea
37 urte



"Ahal dudan moduan. Soldataren zati handi bat joaten da etxeko gastuetan. Beti erakutsi digute etxea erosi egin behar dela, hemen ez dakigu alokairuan bizitzen."

**DAVID GARCIA**
Erreminta makinako langilea 27 urte



"Oraindik gurasoen etxean bizi naiz. Etxeak begiratzen ibili naiz, baina oso garesti daude, soldatatik zati handia kendu behar da eta ondo pentsatu behar da."

**ANTTON IRANZO**
Mekanikoa
33 urte



"Gaizki. Diru asko da eta urte askotarako. Bizitza osoa hipoteka ordaintzen pasatzen dugu. Momentuz, daukadan soldatarekin iristen naiz, baina ez da erraza."

**MERTXE MARTIN**
Estetizista
51 urte



"Soldata bat ia osorik erabiltzen dugu etxebizitza eta autoaren gastuak ordaintzeko eta bestea bizitzeko. Soldata bakarrarekin ezin da etxebizitza bat erosi."

# [ BAI ala EZ? ]

## Erabiliko al duzu Sigmako aparkalekua?

**BAI %25**

"Bai, erabiliko dut. Askotan, lanetik etorri eta kalean zerbait egin behar dudanean, toki ona izan daiteke kotxea uzteko."

**EZ %75**

"Ez, garajea daukadalako. Herritar askorentzat aparkaleku hori urruti dagoela pentsaten dut baina kanpotik datozenentzat aukera ona izan daiteke."

Datorren asterako.... Etorkinen kopurua hirukoiztu egin da Gipuzkoan azken bost urteotan

**Igarri al duzu Elgoibarren etorkinen ugaltzea?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Kresala
HOTELA



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean.**
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

[ GOMENDIOA ]



Idoia Garcia

Masajista

# Masajearen onurak

Zergatik joaten da jendea masajistarengana? Zertarako da beharrezkoa eta onuragarria masaje on bat hartzea? Edozeinek eman ahal dezake masaje bat?

Honelako galderak sarritan egiten dizkiogu geure buruari. Jende askok ez daki zein motatako lesioak senda ditzakeen masajista batek eta duda handiak izaten ditugu masajistarengana joaterako orduan. Bestalde, jende askok min egingo ote duen beldurra ere izaten du.

Gaurkoan Idoia Garcia masajista elgoibartarrak masajearen onurei buruzko gomendio batzuk kontatu dizkigu.

Gaur egun daramagun bizimoduak, gure gorputzarengan eragin negatiboa dauka. Eguneroko erritmo azkarrak, estresak, elikadurak...denak dauka gugan eragina.

Masajea ez da bakarrik dauzkagun kontrakturak edo min muskular bat kentzeko. Gure gorputza erlajatzeko eta mimatzeko bide egoki bat ere bada, eta bizi kalitate egokiago bat lortzeko modua. Masajearen eraginak ugari dira: zirkulazioa hobetzen du, zirkulazio linfatikoa eta efektu drenantea dauka, azalaren tenperatura igotzen du, kontrakturak eta erlajazio muskularra hobetzen ditu, mina gutxitzen du... Erlajazioa lortzea du helburu, ongizate sentsazioa eraginez.

# [ OSASUN GIDA ]

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

## OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## HORTZ KLINIKAK

Nora Bastida
Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75
Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

## FISIOTERAPIA

Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

## PODOLOGOAK

Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

# MENDAROARRAK KORRIKA

*Datorren azaroaren 13an izango da Behobia-Donostia lasterketa. Azken urteotan sekulako arrakasta izan du proba honek. Urtetik urtera partehartzaile gehiago izaten ditu eta aurtengoan ere 11.000 inguru izango dira. Korrikalari horien artean mendaroarrak ere fin aritzen dira. Gaurkoan lasterketan parte hartuko duen gazte talde batekin berba egin dugu batetik, eta bestetik, 23. aldiz Behobia-Donostian parte hartuko duen korrikalari beterano batekin egon gara.*

Igor Ezenarro, Haritz Goikoetxea, Iñaki Arregi eta Roberto Osoro Mendaroko anbulatorio aurrean aurkitu ditugu, batzuk korrika saioa eginda eta besteak korrika egitera joateko prest. Behobia-Donostia lasterketa gainean dago, eta entrenatzea ezinbestekoa da. Igor Ezenarrorekin berbetan geratu gara gainontzekoak korrika egitera joan diren bitartean, eta berak eman dizkigu entrenamendu hauen berri: "Haritz korrika talde batean sartuta dago eta entrenatzaile batekin dabil, oso serio entrenatzen du. Iñakik aurten parte hartuko du lehenengo aldiz lasterketa honetan, orain arte bizikletan ibiltzen zen gehiago eta ni neu hirugarren aldiz joango naiz aurtengoan".

Mendaron korrika egiteko toki askorik ez dagoela kontatu digute, batez ere, iluntzean entrenatzeko: "Normalean industriguneetara edo Kilimon bailara aldera joaten gara, baina iluntzean oso ilun egoten da dena, ez dago argirik. Gainera aldapa asko dago Mendaron, indarra hartzeko ona omen da". Batzuk urte osoan zehar egiten dute korrika, baina Igorrek esan digunez, bera iraila aldera hasten da Behobia-Donostia lasterketarako preparatzen: "Ni iraila aldera hasten naiz korrika. Lehenengo kilometro gutxi egiten ditut eta poliki-poliki gehituz joaten naiz. Bestalde, lasterketa motzetan ere parte hartzen dut abiadura hartzen joateko. Behobia-Donostia prestatze aldera jende askok hartzen du parte 10 edo 15 kilometroko lasterketa motzetan. Abendura aldera arte jarraitzen dut korrika".




Korrika egiterakoan norberak bere erritmoari eutsi behar dio eta bakoitzak hartu behar dio neurria bere gorputzari. Mendaroar hauek ere denbora desberdinak egiten dituzte lasterketan: "Nik egin dudan denborarik onena 1:26 izan da. Haritz 1:15 inguruan ibiltzen da eta Soto, gurekin korrika ibiltzen den beste mendaroar batek 1:10etik behera egin izan du", esan digu Igorrek. Elkarrekin entrenatzen duten arren, lasterketa egunean bakoitza bere aldetik joaten da, ez dute elkarren arteko apusturik egiten: "ezinezkoa da, oso desberdinak gara fisikoki eta nik badakit ezin dudala beraiekin konpetitu. Norberak bere buruari jarri behar dizkio helburuak eta horiek dira gainditu beharrekoak, ez besteenak. Zure maila inguruan dabilen norbaitekin beharbada egin daiteke apustu txikiren bat, baina bestela ez. Denon helburua aurreko urteko marka hobetzea izaten da normalean".

Lasterketa honen berezitasunagatik galdetu diogunean, berehala erantzun digu Igorrek: "Jendearen partehartzea, bai korrikalarien aldetik eta baita ikusleen aldetik ere. Jendearen animoek indar handia ematen dute". Igorren ustez, Mira Kruzeko gaina da unerik gogorrena: "Gaintxurisketak fama handia dauka, baina niretzako Mira Kruz gaina gogorragoa da. Hortik aurrera nekea izugarri igartzen da. Momentu horietan eskertzen da ikusleen babesa".

Mendarotik 10 lagun inguru joaten dira lasterketara, eta esan digutenez, gero eguna Donostian pasatzen dute. Azken urteetan mendaroarren partehartzeak ere gora egin du Behobia-Donostian.



# «Hurrengo urtean berriz parte hartzeko gogoz amaitzea da garaipenik onena»

## AGUSTIN BERASALUZE Korrikalaria

**Agustin Berasaluze mendaroarrak 23. aldiz hartuko du parte aurtengoan Behobia-Donostia lasterketan. 63 urteko mendaroar hau bere familia guztiarekin joaten da Donostiara. Jai eguna izaten da Berasaluzetarren familian egun hau, denak Agustin animatzera joaten dira, eta berak izugarri eskertzen du familiak ematen dion babesa. Gaurkoan soslasalditxo polita izan dugu berarekin.**

**• Nola hasi zinen korrika egiten?**
Beti gustatu izan zait kirola egitea. Nire zaletasuna mendia izan da beti, baina horretarako denbora asko behar da, eta bizitzan denbora hori ez daukazunean beste zerbait egin behar da. Lagun batek animatu ninduen korrika egitera eta honela hasi nintzen. Orain disfrutatu egiten dut, niretzako ez da sakrifizioa.

**• 23. aldiz Behobia-Donostia lasterketan. Ez al zara aspertu urtero lasterketa bera egiten?**
Ibilbidea berdina izan arren, urtero lasterketa desberdina da niretzat. Eguraldiak asko baldintzatzen du, oso desberdina da hego haizearekin edo hotzarekin korrika egin.Urtetik urtera berriberria izaten da. Hasi nintzenean 1000 lagunek hartzen zuten parte eta gaur egun 11.000 dira. Asko aldatu da dena.

**• Zein da aurten zure helburua?**
Batzuk irabaztera joaten dira, beste batzuk oso denbora ona egitera eta ni disfrutatzera joaten naiz. Berdin zait denbora, erlojuaz erabat ahazten naiz korrika hasten naizenean. Bi ordu inguruan egiten dut, iaz 1:56an egin nuen. Hurrengo urtean berriz bueltatzeko gogoz amaitzea da niretzat garaipenik onena. Satisfazio pertsonala da inportanteena. Jakin nahiko nuke 10. postuan bukatzen duenak ni baino gehiago disfrutatzen duen!

**• Bakarrik ala lagunen batekin egiten duzu korrika?**
Bakarrik normalean. Nire erritmora joatea gustatzen zait, beste pertsona baten erritmora joatea zailagoa da. Hori bai, lasterketan jende mordoarekin elkartzen zara, sekula ez zaude bakarrik.

### «Gorputzak ahal duen bitartean jarraitu egingo dut»

**• Zer da lasterketaren onena?**
Ikusleen babesa, dudarik gabe. Hasieratik bukaerara arte jendea animatzen daukazu. Horrek sekulako indarra ematen du. Kanpotik etortzen diren lasterkariak ere harrituta gelditzen dira horrekin.

**• 23 urtez jarraian hutsik egin gabe hartu al duzu parte?**
Behin huts egin nuen. Izena emanda neukan, eta dortsala eskuan, baina azterketa fisiko bat egin zidaten eta azken egunetan ez entrenatzeko esan zidaten. Ondo entrenatu gabe nengoenez ez joatea erabaki nuen. Baina bestela, parte hartu dudan guztietan iritsi naiz helmugara.

**• Noiz hasten zara Behobia-Donostia egiteko entrenatzen?**
Urte guztian zehar egiten dut korrika. Nik ez dut entrenatzen Behobia-Donostia egiteko, alderantziz, lasterketa hau egiten dut urte guztian entrenatzeko. Lasterketa hau jartzen diot neure buruari obligazio bezala urte osoan entrenatzeko. Nire adinean azken orduan entrenatzeak ez du ezertarako balio eta gainera arriskutsua da. Urtarrilean hasten naiz, hasieran kilometro gutxi eginez, uda alderako gehituz joaten naiz eta uda ostean 14 kilometro inguru egiten ditut. Baina beti lasai, neuk nahi dudanean eta gorputzaldi ona daukadanean.

**• Lasterketa honetaz gain besteren batean parte hartu al duzu inoiz?**
Bai. Elgoibar, Eibar eta Mutrikun garai batean lasterketa herrikoiak egiten ziren eta haietan parte hartzen nuen. Behin Donostiako maratoia ere egin nuen, baina gogorregia iruditu zitzaidan.

**• Noiz arte ikusiko zaitugu Behobia-Donostia korritzen?**
Lehen 65 urtera arte korrituko nuela esaten nuen. 63 dauzkat, eta orain ez dakit noiz arte jarraituko dudan. Forman baldin banago ez dut utziko 65 urte egin ditudalako. Gorputzak ahal duen bitartean jarraitu egingo dut.

# GAZTIA NAIZ

## lotsaGABE

**Amaia de Castro** *16 urte*




**Uda ala negua?**
Negua, ez dut beroa ondo jasaten.

**Hotzari aurre egiteko irtenbiderik onena?**
Mutil lagunarekin goxo-goxo egotea.

**Egarriaren kontrako edaririk onena?**
Garagardoa ona da, baina nahiago dut aquarius-a.

**Larunbat gauetan ura ala kalimotxoa?**
Ez bata eta ez bestea.

**Hartuko al zenuke parte "Gran Hermanon"?**
Ez, nire intimitatea jende guztiak ikustea ez zait gustatzen.

**Gustatuko al litzaizuke famatua izatea?**
Ez. Nire bizitzarekin oso lasai nago.

**Loteria tokatuz gero?**
Dirua gorde eta egunen baten zerbait handia egin.

**Edalontzia, erdi hutsik ala erdi beteta?**
Erdi hutsik, pesimista xamarra naiz.

**Txikitan zer izan nahi zenuen?**
Kamarero edo ileapaintzailea.

**Eta orain, zer izan nahi duzu?**
Psikologoa edo enpresa munduko langilea.

**Zein liburu ari zara irakurtzen?**
Bat ere ez, baina "Mujercitas" irakurtzen hasiko naiz.

**Zeini sinisten diozu gehiago apaizei ala politikoei?**
Ez bata eta ez besteari, ez dute egirik esaten.

**Asteko egunik gustukoena?**
Osteguna.

**Ezkondu ala elkarrekin bizi?**
Elkarrekin bizi.

**Etorkizunerako planik?**
Ez, egunerokoa bizi dut.



# bituzik sexologia txokoa

Eli Moreno [Sexologoa]

## Bikote harremanak

***Bikote harremanak zailak dira, botere harremanak dira, eta botere harremanetan zaila da akordioetara iristea. Hasieran, pasioa handia da, batera pasatzen diren uneak intentsoak dira eta ardurak ez dira handiegiak. Denok fantaseatzen dugu, gure imajinazioak harremana betirako izango dela dio, baina errealitateak erakusten digu hasten diren moduan amaitu egiten direla.***

**• Harremana amaitzea porrota al da?**

Ez. Harremana bizitza guztirako izan behar dela esan edo erakutsi digutenez, harreman zailenak ere, mantentzen ahalegintzen gara, harremana etetea irtenbiderik onena izan daitekeela konturatu gabe, eta noski, ez dela porrot bat.

**• Bikoteak ikuspuntu desberdinak baldin baditu?**

Nahiz eta bakoitzak berea defendatu bestearena errespetatu egin beharko luke. Argi izan beharko genuke, gure bikoteak eta guk iritzi desberdinak izan ditzakegula, oso gutxi gustatzen zaizkidan jokabideak izan ditzakela... baina guzti honegatik maite dudala, beste hainbat eta hainbat gauzak txoro-txoro jartzen nautelako. Eta guk bera errespetatzen dugun bezala, norbera ere errespetatu behar da, eta gai izan ezezkoak emateko eta norberaren ideiak azaltzeko. Ezezko batek ez esan nahi du, besterik ez, ez zerbait konkretu bati. Eta ezezkoak, baiezkoak bezain onargarriak dira.

**• Gainontzeko harremanek nola eragiten diote bikoteari?**

Nahiz eta bikotea eduki eta elkarrekin bizi, beste harreman batzuk mantentzen ditugu egunerokotasunean. Honek hazten eta garatzen laguntzen gaitu. Ondorioz, askotan, gure helburuak eta interesak aldatu egiten dira eta une batetan ez ditugu gure bikotearekin konpartitzen. Posible da bere ondoan helburu horiek lortzen ahalegintzea, baina posible da harremana beste harreman desberdin batean bihurtzea eta bikote izateari uztea.

gazte informazioa

### LEHIAKETAK

**GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO I. ARGAZKI LEHIAKETA**

Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartea eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Giza Eskubideei buruzko I. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia: 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik aukeratutako 5 artikulu. Teknika: paper monokromoa edo koloretako papera Sariak: 12tik 18 urtera bitartean; 1.ari, trofeoa eta ordenagailu eramangarria, 2.ari, trofeoa eta argazki-kamera eta 3.ari, trofeoa eta DVDa. 18 urtetik gorakoentzat, berriz, 1.ari, trofeoa eta 2.000 euro, 2.ari, trofeoa eta 1.000 euro eta 3.ari, trofeoa eta 500 euro. Epea: azaroak 25. Informazioa: 943 112323 (Gipuzkoako Foru Aldundia).

**KIROL ARGAZKILARITZAKO XV. LEHIAKETA**

Bergarako Udalak antolatua. Zuri-beltzezko eta koloretako argazkiak eta laborategiko edozein teknika edo prozeduraz. Gehienez ere 4 lan bakoitzeko. Baldintzak: Euskadin bizi direnak. Epea: azaroak 11. Informazioa: 943 779158 (Bergarako Kultur Etxea).

### BEKAK

**BBK - BILBOKO ARTE EDER MUSEOA BEKAK**

Ikerketa Artistikorako Bekak emateko lehiaketa. Baldintzak: Europar Batasuneko herrialderen batean jaio edo bizi direla egiazta dezaketen guztiek, baldin eta deialdi honetan garatu behar duten lana egiteko prestakuntza nahikoa dutela justifikatzen badute. Iraupena: Gehienez, bi urte. Dirulaguntza: Hilean 1.000 euro. Epea: urriak 31. Informazioa: 94 4396060 (Bilboko Arte Eder Museoa).

### EKINTZAK

**GAZTE IKERTZAILEEN XXI. TOPAKETAK**

Salamankako I.N.I.C.E.-k antolatzen du Ikertzaile Gazteen XXI. Topaketa jarduera irekia eta ez-lehiakorra da. Gaia: zientzia, letrak, musika, artea, antzerkia eta orokorrean kulturaren esparru guztiak hartzen ditu. Baldintzak: 30 urtetik beherakoa. Abenduaren 2tik 5era. Epea: urriak 31. Balioa: Txostengileak 50 euro eta txostengileak ez direnak 55 euro. Informazioa: 923 264539.

### LANA

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEEN LAN POLTSA USURBILGO UDALERAKO**

Usurbilgo Udalean sortzen diren aldi baterako hutsuneak betetzeko, Etxez Etxeko Laguntzaileen lan-poltsa osatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Eskolatze-ziurtagiria, 2. hizkuntza-eskakizuna eta B motako gidabaimena. Epea: azaroak 7. Informazioa: 943 371951.

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461
Astelehen-astearte/ostegun-ostiral
16:00-19:00



# AINGERU GALLASTEGI

## TXANDAKAKO INGENIARITZAKO IKASLE OHIA

# «Berriro ikasi beharko banu, Txandakako Ingeniaritza aukeratuko nuke»

*IMHk eskaintzen duen Txandakako Ingeniaritzak 10 urte bete ditu aurtengo ikasturtean. Joan zen urriaren 20an inauguratu zuten 10. promozioko ikasturtea, eta ekitaldi honetan, besteak beste, Aingeru Gallastegi mendaroarra izan zen. Bera lehenengo promozioko ikasleetako bat izan zen eta berarekin berbetan egon gara.*

**10 urte bete ditu Txandakako Ingeniaritzak. Azkar pasa al dira?**

Bai, oso azkar. Hiru urtez egon nintzen ni bertan ikasten eta etapa hori oso bizkor pasatu zitzaidan. Ondorengo zazpi urteak lanean pasatu ditut eta hauek ere konturatu gabe pasatu zaizkit.

**Zergatik aukeratu zenuen IMHn Txandakako Ingeniaritza egitea?**

Modulo 3ko ikasketak amaitu berri nituen hartan, eta ez neukan oso garbi lanean hasi edo ikasten jarraitu nahi nuen. Txandakako Ingenieritzak, bi aukera horiek uztartzen zituenez, izena ematea pentsatu nuen. Hamar urte ondoren, harturiko erabakiaz ez naiz batere damutzen. Berriro ikasten hasi beharko banu, Txandakako Ingeniaritza aukeratuko nuke dudarik gabe.

**Nola moldatzen zinen lana eta ikasketak batera egiteko?**

Arazorik gabe, ez zitzaidan batere gogorra egin, ilusio handiz hartu nuen. Goizez enpresetan lan egiten genuen eta arratsaldez eskolara joaten ginen. Azkenean 8 orduko jarduna zen egunero, ikasten soilik egon izan banintz baino apur bat gehiago. Honek esperientzia ematen dizu eta klasean ikasitakoa praktikan ikusten duzu. Nire ustez oso aberatsa da. Orain hiru egun joaten dira lanera eta bi eskolara.

**Lana bilatzeko arazorik izan al zenuen?**

Ez. Praktikak Danobaten egin nituen. Hura bukatutakoan berehala Goratun hasi nintzen lanean eta orain AGME enpresako esportazio arduraduna naiz.

> **«Ikasketak amaitzean lan munduan murgilduriko ingeniariak gara»**

**Txandakako metodoak emaitza onak eman al dizkizu?**

Bai, zalantzarik gabe. Hamar urte hauetan Txandakako Ingenieritza ikasketak burutu ditugun ikasleon bilakaera profesionalari begiratzea besterik ez dago. Gehienok, erantzukizun handiko lanpostuak ditugu eta badira zuzendaritza postuetara ere iritsi direnak. Nire ustez, horrek garbi uzten du Txandakako Ingenieritza ikasketak lan merkatuak eskatzen dituen profiletara egokitutako profesionalak hezitzen dituela.

**Mota honetako formazioak ohikoak baino egokiagoak al dira?**

Bai. Enpresen beharretara egokitutako ikasketak dira eta ikasketak amaitzean, lan munduan guztiz murgilduriko ingenieriak gara.

**Enpresetan nola baloratzen dute Txandakako Ingeniaritza?**

Oso era positiboan. 10. promozio honetan, 35 ikasle inguru izango dira seguruenik 35 enpresatan banatuta. Proiektu honetan, ikasle–langileak hezitzen parte hartu duten enpresa kopuruari begiratzea besterik ez dago enpresen iritzia zein den jakiteko. Enpresetaz ari garenez, benetan aipatzekoa da ikasketa eredu honen aldeko apostua egin duten enpresen aniztasuna.

**Nola ikusten duzu ikasketa hauen etorkizuna?**

Etorkizun oparoa izango duen ikasketa eredu bat dela uste dut. Frantzian, ia 50 urte luzez, milaka ingeniari eta lehen mailako enpresak bateratu dituen ikasketa eredu kontrastatua da. 10 urte hauek zerbaitetarako balio izan badute, Txandakako Ingenieritza ezagutarazteko izan da, Ingenieritza ikasketak egiteko modu desberdinik badagoela erakusteko eta enpreseri, beraien beharretara egokitutako profesionalak hezitzeko modu berritzaileak badirela erakusteko.

ONGARRI ZINE KLUBA

# Azaroa zine zaleentzako hilabeterik emankorrena izango da



Ongarri Zine Klubak eskuak bete lan izango ditu azaroan, zine klubari dagokionez, hilik emankorrena izango baita zazpi filmarekin. "El cielo gira" dokumental espainiarrak estreinatuko du hila azaroaren 3an. Mercedes Alvarez zuzendariak bere jaioterrioaren desagerpena nola bizi duen kontatzen du zintak. Aldeaseñorrekoa da bera, Soriako probintzian dagoen 14 biztanleko herrixkakoa.

Azaroaren 10ean, berriz, azken boladan indarra hartzen ari den zine hegokorearraren beste adibide bat iritsiko da Herriko Antzokiko pantailara, Kwon-Taek zinegilearen "Ebrio de mujeres y pintura". Azaroaren 24an Gus Van Sant estatubatuarraren "Gerry" filma ikusteko aukera izango dugu.

Azaroaren erdialdera, berriz, Zinema Sozialaren I. Erakustaldia izango da Herriko Antzokian. Mugarik Gabe herrien garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak Ongarriren eta Udalaren laguntzarekin antolatu duen erakustaldia, hain zuzen ere. "Globalizazioa eta generoa" izena jarri diote zikloari eta azaroaren 15ean, 16an, 17an eta 18an lau filma emango dira. Zumarragan, Azpeitian eta Zumaian ere eskainiko dituzte pelikulok.

## Artea euskaraz ikus-entzunezkoen I. rallyan



Gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzeko asmoz, Euskal Herriko 1. Ikus-entzunezkoen Rallya antolatu du Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak. Rallya abenduaren 17an izango da, Eibarren. Bertan parte hartu nahi duten 16 eta 35 urte bitarteko gazte euskaldunek izena eman beharko dute, azaroaren 21a baino lehen. Ikus-entzunezkoen Rallyak, gehienez, hiru minutuko ikus-entzunezko lana sortzean datza, lehiaketa egunean eta Eibarren kokatuta. Lanen gaia lehiaketaren egunean bertan jakitera emango da. Parte-hartzaileek gai horretan oinarritutako lana aurkeztu beharko dute, Eibarreko ezaugarriak barneratuta eta euskaraz ekoiztuta. Alde horretatik, hizkuntzaren presentzia ezinbestekoa izango da.

Rallya izango den egunean bertan, hots, abenduaren 17an, grabatutako lanak proiektatuko dituzte, arratsaldeko 20:30ean. Horren ondoren, sari banaketa egingo da. Guztira, 900 euroko hiru sari emango dira. Informazio gehiago eta izena emateko: Topagunean (www.topagunea.org) edo Eibarko ...eta Kitto! Euskara Elkartean (www.etakitto.com

## Zezenzaleen lagunarteko bazkaria azaroaren 5ean

Elgoibarko zezenzale talde batek Ermuko Rui Bento Vasques zezenzale elkarteko kideak gonbidatu dituzte lagunarteko bazkaria elkarrekin egiteko. Ermuko zezenzaleek urtero antolatzen dute irteera Salamancara. Iaz elgoibartar bat edo beste ere joan zen Salamanca aldera eta ermuarrengandik jasotako tratu ona eta arretaren ordainetan antolatu dute anaiarteko bazkaria. Azaroaren 5ean, zapatuan, izango da Galiza Etxean. Elgoibarko zezenzale guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuak. Honako telefonora deitu besterik ez dute: 943 74 42 66.



## IÑIGO ORTUOSTE ETBko KAMERA-OPERATZAILEA

# «Wescam-a 360.000 euroko kamerarekin play station-ean jokatzea modukoa da»







*Karakaterako eta San Pedrorako igoeretan ohikoa (bietan puntako postuetan) spinning irakaslea... Iñigo Ortuoste (37 urte) kirolzalea denik ezin ukatu. Lanean ere kirolarien ondoan ibiltzen da, ETBko kamera-operadorea baita. Telebistaz ikusten ditugun irudi askoren atzean dago.*

**Noiztik kamera-maneiatzaile ?**

Andoainen Irudi eta Soinu ikasketak egin eta 89an produkzio-etxe batentzat lanean hasi nintzen. Canal +, Antena 3, TVE, Telemadrid, eta beste hainbat katerentzat egin nuen lan eta 98tik hona ETBrako ari naiz.

**Zein dira parte hartu duzun kirol emankizun esanguratsuenak ?**

Estatuko futbol zelai eta zezen plaza guztietan egon naiz, bizpahiru Errege Kopako final emateko zortea izan dut eta futbol amerikarreko partidak ere eman genituen Antena 3 katearentzat. Kirolaz aparte, noizean behin, denetik ematea tokatu zait: Zuberoako meza nagusia, trikitixa, Donostiako Zinemaldia edo baita Lina Morgan protagonista zen TVEko Gabonetako saioa, besteak beste.

**Eta orain zertan zabiltza ?**

Azken boladan futbol eta esku pilota emankizunetan nabilen arren, joan zen asteburuan Euskadiko Aizkolari Txapelketa Nagusia eman genuen. Denetara noa gustura, baina txirrindularitza da nire kirol kuttuna. Helikopteroan joaten naiz eta wescam-aren arduraduna naiz.

**"Wescam"-a ?**

Bai. "La mirada magica" saioa egiteko erabili den kamera. Optika helikoptero kanpoan doa eta urruneko aginte bitartez kontrolatzen dut barrutik. 360.000 euro balio duen aparatu sofistikatuarekin play-station-ean jokatzea modukoa da. Duela 3 urtetik ETBk wescam-arekin egiten dituen produkzio guztietan nabil. Kontxako estropadetan katamaranean joaten naiz wescam-arekin.

**Zure ametsetako emankizuna?**

Tourreko etapa bat mototik ematea. Badakit oso gogorra dela eta damutuko nintzela, puskatuta amaitzen baitute. Helikopterotik lan egitea erosoagoa da, baina ezin da horren gertutik bizi.

**Elgoibarren, zein kirol proba litzateke telebistaz emateko interesgarriena?**

San Antonetako Pilota Txapelketan eta Mugerza krosean lan egin dut, baina Karakaterako igoerak ondo emango zuen telebistaz. Moto edo 'quad'-ean igota jarraitu beharko nuke.

**Ba al dago kirol emankizunetan maisu den telebista katerik?**

Canal +-ek bitarteko eta langile gehiago darabilzki eta asko zaintzen du irudia. Futbol partidetan 18 kamera jar ditzakete eta errealizadore bat espresuki errepikapenetarako. Guk 12 kamera jartzen ditugu zuzeneko futbol emanaldietan eta 5 kamera laburpenak egiteko

**Nolako kamerak darabiltzazue?**

Optika aldetik 55 aldiz handitu daiteke irudia. Kamera normal batekin 14 aldiz gehienez. Nahi izanez gero jokalariaren begia atera daiteke edo ilargira zuzenduz gero, kraterrak ikusten dira. Optikak bakarrik 42.000 euro balio ditzake.

**[ «Moto gainetik Tourreko etapa bat ematea gustatuko litzaidake» ]**

## Euskadiko Bolo Txapelketa

# Iñigo Loiola txapeldunorde Bolibarko Bolo Txapelketan



Kirol orrialde hauetan behin baino gehiagotan ikusi ahal izan duzuen moduan sanmigeldarrak trebeak dira bolo jokoan. Aurten ere gogor hasi dute bolo denboraldia eta bata ez bada bestea, bolari sanmigeldarrak beti daude punta-puntako postuetan. Iñigo Loiola nabarmendu da oraingoan. Idotorbekoa da Iñigo, baina San Migelgo taldean aritzen da. Iruzubietako (Bolibar) bolatokian bota zituen sei txirloei esker bigarren postuan sailkatu zen. Eibarko San Andres taldeko Iñaki Ariznabarretak irabazi zuen Euskadiko XVI. Hiru Txirlo Txapelketari zegokion bigarren jaurtialdia. Josu Lizarralde azkoitiarra sailkatu zen hirugarren postuan. Guztira 63 bolarik parte hartu zuten Bolibarren. Hurrengo bolo saioa Eibarren jokatuko da, Asola Berriko bolatokian, azaroaren 5ean. Txapelketa arratsaldeko 17:00etan hasiko da, ikusi nahi duenarentzat.

## Lagunak eskolako pilotari bat DV Torneoan



Lagunak Pilota Eskolako Aitor Atxotegi pilotaria Diario Vasco torneoan parte hartzen ari da. Afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuenetakoa da. Jubenil mailan Euskal Herrian nabarmendu diren 16 pilotari onenak aukeratu dituzte. Atxotegik Seguran jokatu zuen estraineko partida. Linzoain pilotari naparra lagun zuela, 22 eta 17 irabazi zieten Jauregi eta Nuñez bikoteari. Garaipen honi esker final laurdenak jokatzeko sailkatu dira. Atxotegi plaentxiarra da izatez, baina azken bi urteetan Lagunak Pilota Eskolako kamiseta defendatzen du.

## [ EMAITZAK ]

**Futbola**

Haundi 1 - Laudio Salleko 2 (3. maila)
Elgoibar 1 – Vasconia 1 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Zarautz 2 (Inf.)
Elgoibar 2 – Eibar 6 (Neskak F-8)
Lehengokoak 0 – Elgoibar 2 (Jub.)
Urola 3 – Elgoibar 6 (Kad.)
Urola 2 – Elgoibar 0 (Inf. B)
Ilintza 5 – Elgoibar 0 (Neskak)
Aretxabaleta 2 – Elgoibar 0 (Aleb.)

**Areto Futbola**

Ipar Kutxa Gernika 8 - Kenci Elg. 5 (Nazional B)
Inter Intxaurrondo 1 - Lanbroa 1 (1. maila)
Relojes Mondaine 7 - Toletxe Kafetegia 2 (Jub.)

**Eskubaloia**

Tecnifuelle 35 - Basauri 23 (Sen. mut.)
Hondarribi 19 - ANTT-Softlan 20 (Sen. mut.)
Zarautz 11 – Cometel 24 (Jub. nesk.)
Zarautz 23 – Pneumax Elg. 20 (Jub. mut.)
Pagoaga 13 – Usurbil 24 (Kad. nesk.)
Urnobitza 32 – Egia 25 (Kad. mut.)
Bidasoa 30 – Tecnomeca 21 (Kad. mut.)

**Pilota**

Gipuzkoako Txapelketa
Tartaloetxe 22 - Lagunak (Liza./Arriza.) 9 (2. jub.)
Lagunak (Konde/Txurruka) 25 -Hernani 30 (Jb. nk. plz)
Lagunak (Portu/Atxotegi) 22 - Añorga 19 (2. jub.)
Txapagain 22 - Lagunak (Arrib./Salegi) 8 (kad.)
Diario Vasco Txapelketa
Atxotegi/Linzoain 22 - Jauregi/Nuñez 17 (Jub.)

## [ AGENDA ]

**Futbola** Mintxetan

Zapatua, 29
10:00 Elgoibar – Urki (Neskak)
12:00 Elgoibar – Idiazabal (Kad.)
17:30 Elgoibar – Añorga (Jub.)
Domekia, 30
11:15 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

**Esku pilota** Ikastolan

Barixakua, 28
21:15 Lagunak – Murumendi (2. maila kad.)
22:00 Lagunak – Lizardi Igeldo (2. maila Jub.)
22:45 Lagunak – Beloki 2 (2. maila Nag.)

**Eskubaloia** Kiroldegian

Zapatua, 29
17:45 ANTT Softlan – Usurbil (Senior mut.)

**Areto Futbola** Kiroldegian

Zapatua, 29
11:30 Toletxe Kafetegia – Eskoriaza (Jub.)
16:00 Kenci Elg. – Inter Intxaurrondo (Nazional B)

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## [ LANA ]

**ESKAERA**

Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 639 882 004

Neska garbiketa lanak egin, umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest.
☎ 943 17 28 96

2. mailako enkofratzailea eta 1. mailako igeltseroa den mutila lanerako prest. ☎ 943 17 28 96 (Iosu)

Mutila arratsaldez lan egiteko prest.
☎ 636 923 990

Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.
☎ 943743103/662016630

Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01 (Araceli)

Txistularia eta dantzaria den pertsona ospakizunetarako prest.
☎ 615 799 689 (Naroa)

Lorategi eta haztegiko langileak bere burua eskaintzen du terrenoak garbitu, podaketa lanak edo baserrian lan egiteko. ☎ 662 365 469 (Ibai)

Emakume arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Esperientzia.
☎ 610 755 399

Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 646 238 195

Mutil gaztea eskaintzen da lan egiteko. Igeltsero laguntzaile, gidari, kamarero... ☎ 646 238 195

Neska gaztea gauez umeak zaintzeko prest. ☎ 628 299 986

Neska goizetan lan egiteko prest. Ostalaritzan esperientzia. Garbiketa lanetarako eta tailerrerako prest.
☎ 647 144 950

Neska nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 686 578 228

Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 676 62 38 43

**ESKAINTZA**

Neska edo emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 636 129 543

Asteburuetarakoo kamarero eta sukaldaria behar dira. ☎ 615 72 34 80

Kamareroa behar da. Esperientziarekin. ☎ 943 74 34 11

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 610 45 85 52

Pisua salgai Bernardo Ezenarron. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua, berogailua. ☎ 677202555

Etxea salgai Soraluzen.
☎ 943 85 29 99

Etxea salgai Sigman. ☎ 943744234

Etxea salgai Iñiguez de Karkizano (Artetxe) kalean. Berritua eta dena kanpora begira. Altzariekin. Ganbara.
☎ 627 94 12 61

Pisua salgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela, trasteroa. ☎ 677 43 71 12

**ALOKAIRUA**

Etxe berria alokatzen da.
☎ 943 74 27 47 (20:00-21:00 astegunetan)

Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 646 23 81 95

Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 626 91 49 04 (Rosa)

## [ GARAJEAK ]

Bi garaje alokatzen dira Jausoro Plazan. Itxiak, estreinatzeko.
☎ 653 702 750 (Nerea)

Garajea salgai Santa Ana kalean.
☎ 615 70 98 08

Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean. ☎ 943 74 33 52

Arregitorre 12an garaje marraduna salgai. ☎ 943 74 09 57 (gauez)

Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ 620 135 958

Garaje itxia salgai Urasandin. Anaiak eraikuntzan.
☎ 620 431 480

Garaje itxia salgai Pista Beltzean.
☎ 943 74 27 78

Leku Ederren, 4. solairuan garaje marraduna salgai.
☎ 660 042 159

Mendaron, Udaletxe azpian garaje itxia alokatzen da.
☎ 660 042 159

## [ LOKALAK ]

Lokala salgai Mendaron. 150 $m^2$ Negozioa martxan, diru sarrera demostragarriak. ☎ 943 75 50 20/ 675 708 133

## [ SALEROSKETAK ]

Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Pedigree bikaineko aitaren kumeak. Merke. ☎ 615 76 30 62

Autokarabana salgai. 4-5 pertsonentzako. Ford Transit 2.5D Riviera. Ongi zaindua. Jabea mekanikoa. Garajean. 13.000 euro. ☎ 653 71 49 70

Pentium IV ordenagailua salgai. Windows XP osagarri guztiekin.
☎ 943 74 43 38

Peugeot motorra salgai. 49cc. 500 euro. ☎ 943 74 25 75 (Xabi)

Renault Clio autoa salgai. 1994. urtekoa. Bi ate, txuria. Prezioa adosteko.
☎ 943 74 43 38

Pisatzeko kalkulagailua salgai. Bi saltzailerentzat, txanpon kaxarekin. Prezio onean. ☎ 943 74 84 69

Play Station 2 salgai. Jokuekin.
☎ 685 75 93 15

Ford Focus autoa salgai. 30.000Km. Egoera onean. ☎ 645 72 06 01

Etxe berriko sukaldea salgai. Oso merke. Armairuak, fregadera, labea, bitrozeramika, kanpaia. Eramateko prest, enbalatuta. ☎ 943 74 84 69

Eskopeta repetidora eta paralela kanoia arraiatua salgai.
☎ 943 74 00 79

Kawasaki motorra salgai. ZZR600. RAN-AIR, 112 zaldi. 1994. urtekoa. Oso egoera onean. ☎ 610 89 33 32 (arratsaldez)

## [ BESTERIK ]

Gazte batek lokalerako sofa bat hartuko luke. ☎ 680 55 99 93

Urriaren 19an txakur-pelutxea galdu nuen Leku Ederren. ☎ 686480388

Zilarrezko eskumuturrekoa galdu nuen. David izena eta jaiotze data dauzka. ☎ 943 74 37 07

Urrezko pultsera bat aurkitu dut Leku Eder parkean. ☎ 943 74 28 04

Uztailean urrezko pultsera bat aurkitu nuen Arregitorre inguruan.
☎ 943 74 33 03

Ingelesez hitz egitea gustuko duen pertsona helduren batekin kontaktuan jartzea nahiko nuke. 37 urte ditut, nire ingeles maila ertaina.
☎ 617 17 53 18

Jaka eta barruan neraman telefono mobila galdu nituen urriaren 7an Toletxeko parke inguruan. Mobileko datuak behar beharrezkoak ditut.
☎ 943 53 14 70

---

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

## AISIALDIRAKO 2 ZUZENDARI BEHAR DIRA

Eskatzen da:
- Aisialdirako zuzendari titulua
- Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna
- Harremanetarako dohainak
- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)

Baloratuko da:
- Esperientzia sektorean
- Sektoreari lotutako ikasketak
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea
- Elgoibartarra edo

Eskaintzen da:
- 6 hilabetetarako lan-kontratua, luzatzeko aukerarekin.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: azaroak 4, ostirala.
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea
Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR
Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Aiora) • E-posta: aiora@elgoibarkoizarra.com

# [ZORIONAK]



Zorionak **Aitor** urriaren 31n 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat bereziki, Nerearen partez.



Zorionak **Aitor** gaur 8 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Hanka horrekin eta 50 urteekin argi daramazu! Zorionak Yaiza eta Yerayren partez.



Zorionak **Mirentxu!** Etxeko denon partez muxu asko. Jarraitu horrela maitxia.



Zorionak **Andoni Rodriguez** bihar urteak egingo dituzulako. Guraso eta familiako guztien partez.



Zorionak **Aitana** atzo urtebete egin zenuelako. Guraso eta familiakoen partez.



Zorionak **Printzesa** zure 3. urtebetetzean. Orain arte bezain salada eta alaia izaten jarraitu! kilo bat muxu familiakoen partez.



Zorionak **Ane** joan zen zapatuan 7 urte egin zenituelako. Aita, anaia, Angela eta familiako guztien partez.



Zorionak **aita!** Ondo pasa igandean! Jon, Iker eta Amaiaren partez.



Azaroaren 2an 53 urte beteko dituzulako, zorionak etxeko **ume txikiari.** Muxu handi bat familiakoen partez eta oso ondo pasa!



Zorionak **Ion!** igandean 8 urte!!! Muxu handi bat familiakoen partez.

Zorionak **Ion Garate** igandean urteak egingo dituzulako. Paul eta Danelen partez,



Zorionak **Eneko eta Aitor!** Familiakoen partez muxu handi bana.



Zorionak **Danel eta Jon** urriaren 28 eta 30ean urteak betetzen dituzuelako. Muxu bat etxeko guztien partez..



Zorionak **Paul eta Danel** zuen 4. eta 7. urtebetetzean. Familiako guztien partez muxu handi bat.

**JOSE** *pinturak* **(Txema)**
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

**ELENA**
**ileapaindegia**
**Depilazio Elektrikoa**
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## [ OKINDEGIA ]



30 igandea FOTERO



1 martitzena IBARRENEA

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

28 Etxeberria *(Errosario)*
29 Ibañez
30 **Ibañez** *(* Goizez Bidasolo)*
31 Bidasolo
1 **Zabaleta**
2 Fernandez
3 Yudego
4 Zabaleta

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

**OSASUNA**

| | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

**UDALA**

| | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

**BESTELAKOAK**

| | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

**ADINEKOEN ETXEAK**

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

**IKASTETXEAK**

| | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**SIGMA - ARRIAGA**
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ARRIAGA - SIGMA**
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## Ordu aldaketa larunbatean

Ordu aldaketa egin beharko da, bihar, larunbatetik igandera bitarteko gauean. Urriaren 29an, beraz, ordubete atzeratuko ditugu erlojuak. Honela, goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.




## SINOPSIAK

### «La Huella»



## [ 28 BARIXAKUA ]

**20:00 ELKARRETARATZEA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Etxerat

## [ 3 EGUENA ]

**19:00 AGENDA 21 EGITASMOAREN BATZARRA**
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Landuko diren gaiak: Energia, dibertsitatea eta atmosferako zarata
Deialdi irekia

## [ 4 BARIXAKUA ]

**22:15 FOLK KONTZERTUA**
Taldea: "Kukuma"
Herriko Antzokian

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN
«La Huella»
28, barixakua: 22:15
29, zapatua: 19:30-22:15
30, domekia: 19:30-22:15
31, astelehena: 22:15
1, martitzena: 19:30-22:15
«Charlie y la fabrica de chocolate»
30, domekia: 16:30
1, martitzena: 16:30
«El cielo gira» (Z.K.)
3, eguena: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
«Trasporter II»
28, barixakua: 19:30-22:15
29, zapatua: 17:00-19:30-22:15
30, domekia: 17:00-19:30-22:15
31, astelehena: 19:30-22:15
1, martitzena: 19:30-22:15
2, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
«Otros dias vendran»
28, barixakua: 19:30-22:15
29, zapatua: 17:00-19:30-22:15
30, domekia: 17:00-19:30-22:15
31, astelehena: 19:30-22:15
1, martitzena: 19:30-22:15
2, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «El cielo gira»

**Zuzendaria: Walter Salles.**
**Antzezleak: Jennifer Connelly, Tim Roth.**
Misterio bat argitu eta bere alaba babestu nahi duen ama gazte bat zer egiteko gai den erakusten digu beldurrezko filma honek. Dhalia Williams-ek (Jennifer Connelly) senar ohiarekin izandako erlazio itogarria ahaztu eta buru belarri bere alaba zaintzea beste helbururik ez du. Banatu berri, lana eta bizitokia aldatu ditu, bizi berri bati ekin dio. Erosi duen apartamendu txikiak ezusteko bat baino gehiago izkutatzen ditu, ordea. Zarata misteriotsuak, itokin arraroak... etxeak bizirik dagoela dirudi..



**Zuzendaria: Mercedes Álvarez.**
**Antzezleak: Antonino Martínez, Pello Azketa.**
Aldeaseñorren (Soriako herrixka txikia) 14 biztanle bakarrik geratzen dira. Azken belaunaldia dira. Bizitzak aurrera darrai 1.000 urteko historia duen herrian, baina zaratarik atera eta lekukorik gabe desagertzera doa. Aldeaseñorreko bizilagunek eta Pello Azketa margolari nafarrak ezaugarri bera partekatzen dute. Izan ere, Mercedes Alvarez zuzendariak itsu geratzen ari den margolariaren eta bere jaioterriaren egoera parekatu ditu dokumental honetan.



**1962**. urte inguruko erretratu zahar hau **Ascensión Garciak** laga digu. Argazkia Gorostizaneko tabernaren sarreran aterata dago, eta dirudienez, egun honetan ihauteriak ospatzen ziharduen mutil koadrila honek. Garai hartan ere ihauteriak ospatzen ziren, baina ez zen gaur egun bezalakoa. Orduan ez ziren erabat mozorrotzen, baina detaile txiki batzuk janzten zituzten, kapela, biboteak, korbata... Ikusten den bezala, umore onean pasatu zuten eguna. Gogora ditzagun zein diren koadrila honetako mutilak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Amadeo Garate, Pedro Rodriguez (†), ezezaguna, ezezaguna.**

Erdian: **Eloy (†) eta Higinio Garcia (†) anaiak**

Behean, makurtuta ezkerretik eskumara: **Chucho Viñas (†), Antonio Cabada, Alfonso eta Felipe.**


amalurra
fisioterapia zentrua
amaia etxebarria • estitxu uribeetxebarria
San Frantzisko Kalea, 58 behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 14 63
amalurrafisio@yahoo.es


kukuma
disko berria
aurkezten
Azaroak 4
ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian
Sarrerak aurrez salgai
Kultur Etxean
(Euskara Sailean) goizez
Euskara Saila
Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta Instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri Indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com